



Kable bidezko garraioa

Bixente Eskisabel ataundarra aintzindari izan zen belarra eta egurra kable bidez menditik jaisten **6-7**

Ataungo Gesalbe inguruan egurrarentzako kablea eta kargalekua, eta langileen artean Bixenteren seme Juan eta Antonio Eskisabel. NIEVES LASA - GUREGIPUZKOA.NET

Txemari Garmendia **3** Iritzia
4-5 Gure esku dago **8-9**
 Oianguren ikastetxea Europara
10 Ibilbidea: Zumarraga, San
 Kristobal **11-13** Lierni eta
 Amaia Aranburu **14**



Orain zure erosketa internet-en ireki dugun dendan ere egin dezakezu. Aukera zabala dugu, bisita gaitzazu!

www.argioptikaonline.com



Egurra kablean zintzilikatzeko kargalekua. Bixente Eskisabel ataundarrak halako instalakuntzak eraiki zituen. KABLEGINTZA.WORDPRESS.COM

Bixente Eskisabel kablelaria

Menditik egurra edo belarra kablean jaisteko, kable sistemak eraikitzen aitzindaria izan zen ataundarra.

Aimar Maiz Ataun


Ataunen ospetsuak dira belar kableak. Malkar arteko haranean egonda, aldapa pikoetako belardietatik belar sortak garbararaino zuzenean garraiatzeko erabiltzen zituzten. Lourdes Altunaren *Kablea Ataunen* liburuan 197 kable daude katalogatuta. Gaur egun gutxi batzuk daude erabilgarri. Aitzindaria, ekarlea eta muntatzailea ataundar bat izan zen, Bixente Eskisabel Urbiztondo.

San Gregorioko Artaditxulo baserrian jaio zen Eskisabel, 1899ko abuztuaren 21ean, eta Iruñea hil, 1955eko martxoaren lehenean, erabat argia ez den egoera batean —bezero baten zorra kobratzera joan, eta Takonera parkean hilda aurkitu zu-

ten—. XX. mendearen erdian enpresari garrantzitsu izatera iritsi zen, bere esanetara 200 bat langile edukitzeraino.

Kablelaria zen Eskisabel. Egurra nahiz belarra garraiatzeko kableak muntatzen zituen, beste inor edo ezer iritsi ezin zen parajeetatik. Ideia nondik hartu zuen ez dago garbi, baina orain haren biloba Xabier Eskisabel eta Inazio Munduate ataundarra Bixente Eskisabellen lana argitzen saiatzen ari dira. 2011ko udaberrian hasi ziren araka, kablelaria eta kablegintza ikertzen.

«Kableena Europa guztian oso hedatutako garraio sistema zen, batik bat Alpeetan. Euskal Herrian, lehenengo kablea Nafarroa Behereko Mendi-



Goitik behera: Eskisabelen sendia —atze-atzean dagoena da Bixente—; kablea Iratin, 1950eko hamarkadan; beheko bietan, Uztegiko (Araitz bailara, Nafarroa) belar biltzea.

KABLEGINTZA.WORDPRESS.COM - DELCAMPE.NET - JESUS
ELOSEGI-GUREGIPUZKOA.NET

be herrian jarri zuten, 18 kilometrokoa, Iratiko oihanetik Pedelucq anaien zerrategira egurra eramateko. 1927an ireki zuten. Sistema muntatzeko Italiatik Moretti anaiak ekarri zituzten. Gure susmoa da aitona zenak, nola edo hala, han ikasi ote zuen kablearen muntaia. Baina ez daukagu ziurtasunik», dio Xabier Eskisabelek.

Ataunen ikusten ohitutako kableen aldean erraldoiak erai-ki zituen Eskisabelek. Irati aldean lan asko egin zuen. Oroz-Betelu herria izaten zuen oinarriko kanpaleku. Pirinioetan harago ere jardun zen, edo Ca-zorlako mendizerran (Jaen, Espainia), Marokon (Espainiaren menpekoea zenean)... 14 edo 15 kilometro luzeko sistemak muntatzen zituen. Ataunez gain, Arriaranen (Beasain) edo Asteasun (Gipuzkoa) baziren Eskisabelek jarritako kableak, baita Aralarren nafar aldean ere, Malloetan-eta. Bestetik, Ataunen gazte askori erakutsi zien langintza Eskisabelek.

Kable teknologiak loraldia Bigarren Mundu Gerraren ondoren izan zuen. «Espainia autarkia ekonomiko batean zegoen, ez zeukan ez gasolina, ez eraikuntzarako porlan, ez ezer. Egurraren ustiapen masiboa gertatu zen», dio Eskisabelek.

Ekonomiaren piztaile

Aparraldi hura baliatu zuen kablelari ataundarrak, 1930, 40 eta 50eko hamarkadetan, 20 edo 30 urteko *boom*-a. Ondoren, kamioien sarrerarekin eta mendi pistak zabaltzearekin, hazi bezala hustu zen negozioa. Sona handia hartu zuen Bixente Eskisabelek. «Haren lana kable instalazioak egitera mugatzen zen, eta egurraren garraioa egitera. Ez zuen basorik erosten». Garraioa bukatu, eta beste norabait eramaten zuten instalazioa.

«Anso haraneko (Huesca, Espainia) herritarrek esaten dute herri hura gure aitonari esker atera zela aurrera. Oraindik

Baso ustiapena beste aberastasunik ez zegoen garaian, herri ugariri etekina eman zien kableak

Menditik egurra jaisteko garraio lanak egiten zituen Eskisabelek; 200 langile eduki zituen

badaude langintza ezagutu zuten pertsonak, 80 urtetik gorakoak. Esaten dute, 1940ko urteetan mendietan bazutela aberastasun bat, egurra, baina ez zutela modurik hura ustiatzeko, industrialki eta azkar. Aitona izan zen Ansori ekonomikoki buelta eman zion aukera».

Formazioz ez zuen ikasketak tekniko berezirik. «Baserriko semea zen, ez ingeniaria, ez ezer. Ezagutu zutenek diote bazuela halako iaioetasun bat; mandoa hartu, mendira igo, buelta bat eman, eta kablea gutxi gora-behera nondik joan behar zuen esateko gai zela. Sena zeukan, mendia ezagutzen zuen. Horrek ahalbidetu zion izugarritzko enpresa osatzeari». Oraingoz, ordea, enpresa haren paperik edo agiririk ez dute aurkitu. Berriki, Iratiko oihanean lan egin ahal izateko *salbokondukto* bat aurkitu dute, Nafarroako Epaitegi Nagusiko artxibategian.

Eskisabel eta Munduate Euskal Herrian barrera dabil-tza ikerketan. Morettitarren ondorengo bat elkarrizketatu dute Mugerren, Jean Moretti; artxibategiak arakatu dituzte; eta kableak zeuden parajeetan ibili dira —oraindik aztarnak badira—. Aurkikuntzen berri eta arloari buruzko informazioa blog batean ipintzen ari dira (kablegintza.wordpress.com).